



AUZO BILERAK 2024

AUZO: Altzibar

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2024/10/03	18:00	20:15

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Joana Mendiburu, Garazi Urdampilleta eta Olaia Lasa		
Herritarrak:	Euskaraz: 14		Elebitan:1
	Emakumezkoak: 10		Gizonezkoak: 6
	<30 urte:	31-50 urte: 7	51-65 urte: 2 >66 urte: 7

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Batzarrean landuko diren gaiak aurkeztu dira.
Legealdi planaren jarraipena	<p>Lan ildo nagusi edo estrategikoen berri eman da.</p> <p>Legealdi planaren jarraipena eta urteko helburu nagusiak aurkeztu dira:</p> <p>2024:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ongizate saila Fermiñenera lekualdatu da. Elkarlanerako erraztasun handiak ekarri ditu horrek. Erabiltzaileak eta herritarrak gustura daude kokapen berriarekin.- Udaleko euskara plan berria idatzi da.- Oiartzun irratitari bultzada bat eman zaio. Herrian gai horretan adituak diren zenbait pertsona elkartu dira horretarako.- Euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko programa abiatu da herriko ikastetxeetan. Gailu teknologien erabilera eginez herrira iritsi berriei harrera egiteko helburua du (guraso bileretan adibidez).- Aurten lehen aldiz mugalderako udaleku ibiltariak antolatu dira. 30 bat gaztek parte hartu dute. Datorren urtean ere egiten jarraitzeko asmoa dago.- Mugikortasun eta energia plana idatzi eta onartu dira.



- Lehen sektoreko doako ordezkapen zerbitzua martxan jarri da.
- Burujabetzen prozesua martxan jarri da. Aurten jardunaldiak antolatu dira Oiartzunen Udalbiltzarekin batera.
- Hirigintza aldetik plan ezberdinak daude martxan: Arraguan egingo diren 400 etxebizitzetako prozesu partehartzailea egin da. ELI6 eremuan ere 200 bat etxebizitza egingo dira. Horrekin lotuta, hirigintza ikuspegi feministatik
- Inbertsioetan. Futbol zelaia, bidegorriko azken tunela, Ugaldetxoko lotunea, Zurko baserriko bidezidorra eta Mendinekin ere. Bi lotura berri.

2025:

- Herritarren Arretarako gune berria martxan jarriko da. Lehen Sabadell-eko bankua zegoen lokalean egingo dituzte aurrerantzean herritarrek udalarekin lotutako gestioen gehiengoa.
- Mugikortasun plana eta energia plana (Rafael Pikabea...) gauzatzen hasiko dira.
- Atez atekoaren bilketa kudeaketan hobekuntzak egingo dira. Horretarako, Arraguan proba pilotu bat egingo da.
- Burujabetzen prozesuarekin jarraituko da. Mahaiak martxan jarriko dira jardunaldien ondoren.
- Hirigintza planak herritarrekin lantzen jarraituko dugu. Arragua, ELI6 eta Ugaldetxo.
- Musika eskola publikoa sortzeko parte-hartze prozesua egingo da. Aurten lanketa bat egin da.
- Liburutegia berritzeko parte hartze prozesuan lagundu. Eraikina berrantolatuko da, erakargarriago egin eta herritar guztien eskura jartzeko.
- Merkataritza txikia sustatzeko plana egingo da.
- Naturguneen azterketa egingo da, bioaniztasuna zaintzeko.
- Haur etorri berriek euskara ikasteko esperientzia pilotua martxan jarri nahi da. Hezkuntzarekin lantzen ari da gaia.
- Inbertsioak: Altzibarko gune estalia, ikasketa gela berria, energian, ur hoditerian, mugikortasunean...



Ordenantza fiskala eta aurrekontuak	ORDENANTZA FISKALAK <ul style="list-style-type: none">- Ordenantza fiskalak hiru helburu izanik berritu dira:- Errenten araberako ordenantzak, Klima aldaketaren aurkako neurriak saritu eta etxe hutsak merkaturatzeko hartu genitzakeen neurriak hartu.- %2 igoera tasetan eta KPI-%3,4.- Kohesio soziala zaintzeko, Aztikerrekin azterketa sozioekonomiko bat egin dugu Oiartzungo errealitatea ezagutzeko.- Kohesio soziala. 3975 bizitza unitate Oiartzunen. Familia errentari dagokionez. 50 familia, adin txikiko batekin <13.500€, 50 familia bi adin txikiko <13.500-26.000€.- <13.500€ errenta duten bizikidetzak unitateentzat udako igerilekuetarako prezio murriztu bereziak egon dira.- Trakzio mekanikoa familia ugari errentaren arabera.- Gainerako herrietan bezala, Oiartzunen biztanleriaren zahartzea ikusten da. >65, gorakoak 20 urteetan %8 igo da. Kiroldegian 65 gorakoak prezio murriztua izango dute, zahartze aktiboa bultzatzeko.- Ekonomiarekin lotutako datuak: %75ak zerbitzuetan egiten du lan, industrian gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun handia. Nekazaritza eta abeltzaintzan gutxiengoak egiten du lan. Langabezia tasa % 5 inguru.- Transizio ekosoziala (energia, mugikortasuna eta hondakinak). Legeak energia kontsumoak % 35 jatsi behar ditugula eskatzen du. 15 eraikin nagusiak kontsumoaren %85aren erantzule dira. Elorsoro kiroldegia da Udalaren energia kontsumoaren %37a. Energiaren %32 energia berriztagarrietatik etorri behar da. Udalaren zuzeneko kontsumoa jaisteko neurriak. Ekonomia sektoreetan eta etxebizitzetan energia eraginkortasuna bultzatzea. Mugikortasun iraunkorraren aldeko neurriak. Klima aldaketaren inpaktuen jarraipena egin: ibaiak, natur-guneak, itzalak...- Hobariak: Energia aprobetxamendu sistemak (eguzki panelak) jarriz gero %50eko hobaria izango da. Instalazioetan %95eko hobaria egongo
--	---



da. A eta B energia-efizientzia lortzeko eraikuntza, instalazio edo obrak egin behar izanez gero, hobaria izango da, %95 eta %80 bitarte.

- Mugikortasun planean (2024-2028), 5 ildo estrategikotan jasotako 35 ekintza jasotzen dira: Oiartzungo ardatz aktiboak, garraio publikoa, kotxearen kultura murriztea, jarduera ekonomikorako eremuetan eragite eta hirigintza eta mugikortasuna.
- Mugikortasunarekin lotutako hobariak: etxebizitza komunitateetan bizikletak aparkatzeko gune berriak sortzeko obretan %95eko hobaria obren zergan. Interes publikoko obra izendatu beharko ditu plenoak. Trakzio mekanikoen zergako hobariak CO2 isuriaren arabera.
- Hondakinak: 7/2022 legea dator Europatik eta 2030erako % 70eko birziklatze tasa izan beharko dugu. Oiartzunen gaur egun %78ko birziklatzeko tasa dugu atez atekoari esker. Bakoitzak sortzen duen hondakinaren arabera tasak ordaintzera bideratuta dago legea eta gu ere bide horretara lerratzen hasiko gara. Beste helburua defizit 0 filosofia da. Tasekin ordaindu beharko da hondakinen kudeaketa. Gaur egun, 1.000.000€ finantziatu behar du tasetatik. Orain arte %60 kubritzen zuen tasak eta Udalak gainerakoa ordaintzen zuen. Udalak gastu hori nola murriztu aztertuko du. Aurten, hala ere, hondakinen tasa garestitu egingo da. Ondorengoa izango da tasa: 4€/hilabetean, 56€/lauhileko eta urtean 168€. Gipuzkoako beste herrieekin konparatuz 5 merkeen artean gaude, bilketa sistema dena delakoa dela. Defizit 0-rako, 200€ inguruko tasa beharrezkoa izango da etorkizunean.
- Etxebizitzak: gainkargua etxe hutsetan %100 izango da. Hobari berri bat %50eko hobaria izango da Bizigune edo ASAP programetan sartzen diren etxebizitzentzat.

UDALEKO AURREKONTUA

- 2025eko aurrekontua 20 milioi ingurukoa izango da.
- Sarrerak: Nagusiki Foru Aldundiko funtsez osatua da. Zergak % 33a. %17a tasak



	<ul style="list-style-type: none">- Gastuak: Pertsonal gastuak gastuen herena dira (%34), diru laguntzetan %18. Gastu arruntak eta zerbitzuak %36,4. Inbertsio errealetarako %10,2.
Auzoa	<ul style="list-style-type: none">- Eskaerak:<ul style="list-style-type: none">o Balkoien ordenantza aldatzea: epe motzean presto Frontoiko obra auzotarrekin batera: martxan dagoo Frontoiaren ondoan bizikletak garbitzekoa. Jasoa dagoo Eroski eta errotako zaborrontziak handitu. Herriko 11 gunetako zabor-guneetan jarriko dira zabor-ontzi handiagoak. Guztiak batera erosi dirao Zakurrak debekatuta kartela Eroski aurreko zelaian. Ez da aurreikusten. Albaitariarekin batera kontzientiazio kanpaina bat egin nahi dao Agerraldeko biribilgune berriak zuzaitziz ez.o Auzo lokalean ekintzak egitea. Auzotarren egitekoao Uholdeei begirako neurriak. Energia eta mugikortasun planak- Egitekoak:<ul style="list-style-type: none">o Etxebizitzak: Promozio berria martxan jarri da.o Parkineko obrak esleituta daude eta aurten egingo da.o Gune estaliaren proiektua onartuta dago. Laster hasiko da. Bizikletak garbitzeko gunea eta komuna aurreikusten dituo Kale berriak ur putzuak sortzen dira eta lanak aurten egingo dirao Balkoien ordenantzarekin lanean ari gara.o Mugikortasun-plana: Xorrola bidegorriaren eta Karrikara doan bidegorriaren arteko lotura hobetzea <p>Herritarren eskaerak:</p> <ul style="list-style-type: none">- <i>Garrantzitsua hondakinen kostua jaitea. Gaur egun gauez egiten da bilketa, ezingo genuke bilketa egunez egin? Ez genuen pentsatu aukera hau, baina aztertzea da, beti ere pardel eta konpresena egunero ateratzeko aukera bermatuz.</i>

- *Xorrolako bidearen amaierako zubiarekin gertatzen dena da zubiaren inguruak jabego pribatuarenak dira eta zaila izango dela hori egitea. Hiru jabe ezberdin dira baina egingarria da eta horretan saiatuko gara.*
- *Kale berriko ur putzuak konpontzeko obrak noiz hasiko dira? Bertan garajea duten bizilagunei oztopatuko die noski. Obra segituan hasiko da eta eragingo balu jakinaraziko litzake.*
- *Promozio berriaren ondoko autobus geltokian autobusak ondoko erraila hartzen du bidegurutzean, promozio berrian zeozer aurreikusia dago? Promozio berriarekin batera biribilgune bat doa bidegurutze horretan eta aurreikusten da horrek abiadura ere murriztuko duela.*
- *Promozio handiak datoz, eta irisgarritasun aldetik ugaldetxora iritsi orduko arazoak hasten dira. Mugikortasun aldetik arazo asko ditugu eta jende gehiago bizitzean nola eragingo du Arraguan? Autopista doakoa izatearen nahia hor dago oraindik ere, agian ez dago erantzunik, baina tratatu beharreko gaia da horrenbeste etxebizitza gehiago egingo badira. Mugikortasun planak horri ere erantzun nahi dio. Oiartzunen zer hobetua badugu, joera handia dugu kotxea hartzeko, egia da erosotasuna dugula hori egiteko, aparkatzeko arazorik ez eta doakoa. Mugikortasun planak honi buelta eman nahi dio (10-15 urteko proiektzioa duena). Autopista doakoa izatearen ondorio izan daiteke kotxe gehiago ekartzea; eta ohiturak aldatzen ditugu oztopoak topatzen ditugunean. Garraio publikoa ere landu eta sustatu nahi dugu, hori dela eta topo zerbitzua handitu....*

Arraguako prozesu partehartzaileak bereziki kontuan izan da bertako trafiko karga.
- *Etxebizitzak direla eta, Olaldeko desastrea egin zen, baina balkoiak egitea beharrezkoa da, baina diseinua oso-oso garrantzitsua da, kalea ikustea garrantzitsua da.*

Formakuntza bat egin dugu eta bertan aipatzen zen kontuetako bat da, eserita edota ohean dagoen gaixo batek ezin du ikusi kalea balkoak opakoak egin ezker. Balkoak bezalaxe bajoekin zer egiten den oso garrantzitsua da, gaur egun etxebizitzak egiten dira horma batekin tapatuta eta kaleak ixten ditu.

- *Garrantzitsu ikusten dut Oiartzun erreferente izatea hainbat kontutan, adibidez, etxearen estetika teilatuak, koloreak, altuera,...*
- *Eraikitzaera doazen eraikinetako espazioa komunetako: Batetik, zaborrak biltzeko. Lokal bat egitea etxe berrietan zintzilika jarri gabe. Bestetik espazio komunak arropa garbitzeko, energia aurrezteko eta etxe bakoitzak bere labadora jarri beharrean.*
 Promozio berrietan hondakinen espazioak eta bizikleten espazioak aurreikusita daude.
- *Autobusa askotan beteta eta 40 minutu behar dituzu Donostiara iristeko. Aukera legoke autobus gehiago jartzeko?*
 Azaldu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena dela eskualdea Donostialdearekin lotzen duen autobusena. Partekatu da lehiaketa berria egitear dagoela eta enpresa berri batek kudeatuko duela, esleipen hau ematen denean autobusen maiztasunak hobetu egingo dira Oiartzunen eta linea berri batzuk ere sortuko dira.
- *Ordu punta batzuetan Ugaldetxo eta Arraguako biribilgunean sortzen dira arazoak eta garraio publikoa bertatik joango bada arazo berberarekin topo egingo dugu. Lanbarreneko kamioiak asko eragiten du neurri batean. Kamioi multzo bat gasolina bila bakarrik joaten dira ez "lanera", bertako gasolindegiekin ere lanean gabiltza. Bestalde, A8tik irteera zuzena egite aurre ikusten zen eta bertan behera geratu zen. Egingarria denez berriz ere aztertu nahi da aukera hau eta horretan gabiltza. Arraguako bi biribilgunea artean garraio publikoarentzat beste karril bat gehitzea beste irtenbide bat litzateke.*
- *Arraguako etxe berrietara sartzeko ezin liteke sarrera atzealdetik egin?*
 Aurreikusia dagoela erantzun da.
- *Peajeak amorrua ematen dit Oiartzuarrek bakarra ordaintzen dugu autopista hori, Hernanikoak doanik sartzten dira bertan. Gainera peajea ez dago batere txukun.*
- *Gune estalia ederki ikusten dut, baina parkeren bat estaltzeko aukerarik ikusten duzue? Plaza askok azpian aparkalekua dute eta*

horrek zailtzen du gainean estalkia jartzea, pisuagatik edota ur filtraioengatik. Helburua bada gune estaliak sortzea euriarentzat, baina gero eta gehiago beharko dugu udarako ere. Altzibarren egiten ari diren promozio berrian aurreikusten dira bi estalpe, bat parkearekin eta bestea mahai eta aulkiekin, baina aztertzen ari gara ea erreala den aukera hori. Eraikitza doan gune estalian (frontoian) ez genuke beste behin frontoi erabilera hutserako izatea. Erabilera hibridoago bat izatea nahiko genuke eta horretarako baliabidean jartzea da asmoa.

- *Lehengo urteko batzarrean aurrekontuetan ikusi zen kirolean zein gastu egiten zen, ederki dago bidegorria, bizikletak,... nire inguruan ikusi da futbol zelaia miloi eta erdi, kiroldegia miloi eta erdi. Gero Helta bezalako talde bati ez zaio behar adina diru ematen agian. Zein kriterio jarraitzen ditu udalak? Futbol zelaia ez da gure lehentasuna futbola sustatzea, baina egia da 400 neska mutil ibiltzen direla futbolean eta futbol zelai hori oso gutxi erabiltzen zen. Obra honek ekarriko du erabilera handiagoa.. Heltaren kasuan diru kontuetan ez du horrenbeste eskatzen baina, egia da lokal aldetik inbertitzen dela kasu honetan. Arraguaren eskaera ere bada Helta auzora eramatea eta promozio berrietan ere. Kirol sailean banatzen den dirua, kirol mahai horretan onartu diren irizpideen arabera banatzen dira diruak, kirol mahai kirol elkarteko kidez osatuta dago.*
- *Bpx-i eskatzen zaizkio erantzukizunik? Jendea alde egiten ari den sentsazioa du herritarrek. Udala Kiroldegiaren kudeaketari eta eskaintzari jarraipen estua egiten ari da. Bazkide kopuruari dagokionez, pandemia aurreko datuak berreskuratzen ari gara eta hiletik hilera kopurua gorantz doa.*
- *Teilatuen gaia, teilatu gabeko etxebizitzak eraikitzen ari dira. Promozio berriei begira ze aurreikuspen dago. Promotoreak egiten du proiektua eta nahi izaten dute teilatu gabea egin. Negoziatzen den gutxian ba non eragin nahi dugun ongi pentsatu behar dugu. Arraguan adibidez etxebizitzak non joango diren, zenbat tasatu eta zenbat libre izango diren itxita dago, baina gainerakoa itxi gabe dago.*



	<ul style="list-style-type: none">- Arraguako promozio berrikoak luzeak izango dira? 5-6 solairukoak izango dira eta etxetik etxera 40 metroko tarteak daude.- Alzibarko zubia zuhaitzez beteta dago. Klima aldaketa dela eta teknikoek esan dute zuhaitzak inguruko lurra eusten duela eta urak itzala behar du, baina begiratu dugu hemen moztea komeni den ala ez.
Itxiera	Burujabetzetako parte-hartze prozesuaren eta burujabetza jardunaldien berri eman da. Batzarra baloratzeko orria banatu da. Asistentzia orrian jasotako posta elektronikoetara gaurko akta bidaliko dela gogorarazi da.

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	7
bilera ongi gidatu da	8
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8
Auzotar kopurua	4
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7
Saioa probetxugarria izan al da?	8
Egunaren egokitasuna	7
Orduaren egokitasuna	7
Lekuaren egokitasuna	8